



PING YUAN SHANG DE HUO YAN / FIRE ON THE PLAIN • Txina

Zhang Ji (zuzendaria, gidoilaria) (on line)

Zinema beltzarekin lotutako drama, baina oinarri soziala duena

SERGIO BASURKO

Aitortu behar dut sekula ez zaidala halakorik gertatu: zinema-aretoa *Ping yuan shang de mo xi* izenburuko pelikula txinatarra ikustera sartu eta, irtetea, ordu eta erdi eskaseko denbora-tartean, izenburua aldatu diotela jakitea, *Ping yuan de huo yan*. Globalizazioaren eldarnioak edo, *lost in traslation*. Auskalo, batek dakil!

Gainera, ditxosozko pandemiaren murrizketen ondorioz, *Ping yuan shang de hou yan* filmeko ordezkariak ezin izan dira Donostiara etorri filma aurkeztera. Zhang Ji zuzendaria bideo-konferentzia bidez aritu baita kazetariekin.

Hain zuzen ere, planetak gaur egun jasaten duen testuinguru dramatikoa izan da zinemagile hasiberriaren mintzaldiaren ardatza: "Pandemiak ez dio Txinari bakarrik eragin, mundu guztia astindu du. Coronavirusaren ondorioz, filmaren estreinaldia atzeratu behar izan genuen, baina baita ekoizpenaren beste etapa asko ere. Azkenean, konturatu ginen zailena ez zela izango aktoreak aukeratzea edo azken muntaia nola osatuko genuen eztabaidatzea, baizik eta nola demontre aterako genuen proiektua aurrera, non eta noiz estreinatu ahal izango genuen... Horretarako, bat-batean eta denboraldi luze batez dena geldirik geratu zen mundu baten zailtasunei aurre egin behar izan genien".

Eleberriaren egokitzapena

Baina beste zailtasun batzuk ere izan ziren: "Filma Txinan eragin handia izan zuen eleberri batean oinarrituta dago. Ni erabat liluratuta geratu nintzen



Zhang Jik telematikoki egin du bere filmaren prentsaurrekoa.

MONTSE CASTILLO

lehen irakurketa egin ondoren. Hala ere, liburuak adar asko dauzka eta horregatik latza izan zen filmatu aurreko hautaketa prozesua. Liburuak pasarteak iragaztea oso neketsua izan zen, jatorrizko testua ez baita film bakar batean sartzen; beraz, zorrotz jakatu behar izan genuen, kontakizuna laburtu baina, aldi berean, eleberriaren muina gordetzeko. Eleberriaren egokitzapenarekin bakarrik bost urte igaro genituen".

Zhang Ji zuzendariaren lehen filma zinema beltzari lotutako drama bat da: Hilketa-segida batek Fentun hiria kolpatu du. Krimenak misteriosuki

eten dira, poliziak hiltzailea aurkitu baino lehen. Zortzi urteren buruan, biktimetako batengandik gertukoa zen polizia gazte batek ikerketa berriro irekitzea erabaki du.

"Bai liburuak, baita filma ere, Txinako gizartearen aldaketak ulertzeko bi une garrantzitsutan giroa dago: lehenengo eta behin, 1997an, eta ondoren, 2005ean. Txinako gizartearen hazkundera eta aldaketak ulertzeko funtsezko bi aldi historiko dira. Gainera, bi garaiekin lotura pertsonal eta emozional handia sentitzen dut, nire bizitzako funtsezko etapetara eramaten bainaute, nire haurtzarora eta

nerabegarora, alegia", aitortu du zuzendariak.

Hazkunde horren sintometako bat da zinema. Zhang Jik, bere herrialdeko zinema-industriaren egoerari buruz galdetuta, hauxe dio: "Azken urteotan goraldi nabarmena izan da Txinako zinemagintzan. Aukera asko zabaldu dira film berriak egiteko; horri esker, zuzendarien 'harrobi' berriak sortu dira, eta, zorionez, gure mugetatik haratago lekua aurkitu ahal izan dute. Zentzu horretan, Zinemaldia bezalako jaialdi batean gure filma aurkeztu ahal izatea une honen sintoma zorionsua dela uste dut".

A Chinese Film Noir in the Age of the Coronavirus

Due to the coronavirus pandemic the team that made *Fire on the Plain* were unable to come to San Sebastián to present the film. Its director, Zhang Ji, spoke to the press via a video link. He confessed that the pandemic had delayed several of the production stages as well as the premiere of the film. In the end they realised that the biggest problem that they faced was not choosing the actors or debating on what was going to be left in the final cut, but ensuring that the project could go ahead. The film is based on the novel "Moses on the Plain" by Shuang Xue Tao that had a huge impact in China and another major problem was deciding which parts to leave out without losing the spirit of the book as the original text couldn't be fitted into a single film. This took them more than five years. The filmmaker also said that the two time periods in which the film takes place: 1997 and 2005, were not only key periods for understanding the changes that led to Chinese society to grow so dramatically but were also crucial stages in his own personal life.



San Telmo Museoa

EUSKAL GIZARTEA ATZO. EUSKAL GIZARTEA GAUR
LA SOCIEDAD VASCA DE AYER. LA SOCIEDAD VASCA DE HOY

LA SOCIÉTÉ BASQUE D'HIER.
LA SOCIÉTÉ BASQUE D'AUJOURD'HUI.

THE BASQUE SOCIETY OF THE PAST.
THE BASQUE SOCIETY OF THE PRESENT.

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus

@santelmomuseoa
Instagram Facebook Twitter YouTube

STM
San Telmo Museoa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DC
donostia
kultura